

2005EKO IRAILAREN 7KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko irailaren zazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko uztailaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU euro eta HIRUROGEITA HAMABOST zentimo (263.634,75 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 606 zbk.dun esped.: astean egun 1ean, egunean 2 orduko zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %48a jarriko du.

- 385 zbk.dun esped.: zerbitzua gehitzea, astean 5 egunetan eta egunean 2 ordutatik, astean 6 egunetan eta egunean 2 ordutara. Bestalde, diru-sarreraren aldaketa dela eta, onuradunaren ekarpena ere aldatzea, berak jarri beharrekoa %15etik %8ra jeitsiz.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 120 zbk.dun esped.: Elkarbizitza unitatean egondako aldaketak direla eta, etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko laguntzetatik baja ematea.

- 385 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 34,90 €tako dirulaguntza ematea, irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %85a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 796 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 52,10 € eta telealarmaren mantenimendu gastuetarako urtean 55,50 € ematea. Ematen zaiona telealarma zerbitzu kostuaren %75a da.

Erretiratu eta pentsiodunei dirulaguntza.-

Orobione Erretiratu eta pentsiodun elkarteari, San Migel egunerako 1.980 euroko dirulaguntza ematea.

Udal tasen arloko dirulaguntzak.-

Udal tasak ordaintzen laguntzeko onartutako ordenantzaren arabera, 2004 urteko tasei dagokienean aurkeztutako eskari eta gainontzeko dokumentazioa ikusi ondoren eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntzak ematea erabakitzen du:

EXPEDIENTE ZK. PORTZENTAIA DIRULAGUNTZA

Esp. Zbk: 20	% 50	48,07 €
Esp. Zbk: 19	% 100	185,62 €
Esp. Zbk: 16	% 50	102,74 €
Esp. Zbk: 8	% 100	203,93 €
Esp. Zbk: 18	% 50	90,68 €
Esp. Zbk: 12	% 100	186,02 €
Esp. Zbk: 1	% 50	65,77 €
Esp. Zbk: 9	% 50	61,82 €
Esp. Zbk: 13	% 50	91,91 €
Esp. Zbk: 11	% 50	54,58 €
Esp. Zbk: 4	% 100	103,44 €
Esp. Zbk: 17	% 50	61,46 €
Esp. Zbk: 14	% 75	85,14 €

Hezkuntza esku-hartze familiarra.-

- 337 zbk.dun esped.: hezkuntza esku-hartze familiarra 4 hilabetez luzatzea (2005eko irailetik abendura). Esku-hartze honen kostuaren aurrekontua 1.922 eurotako da.

IV.- SAN MIELETAKO PELOTA DIRU-LAGUNTZA.-

Lazkao Kirol Elkarteko Pelota Sailak San Mioletako eskolame eta helduen esku pelota txapelketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik eta Kiroletako Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak 260 eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

V. - BILERAREN AMAIERA. -

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.